



2014KO MAIATZAREN 9KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko maiatzaren bederatzian, arratsaldeko lau eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Haizea Mendia Insausti.

Maialen Aldasoro Aranburu zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2014ko apirilaren 25ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 26 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA BOST MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA HOGEITA BOST ZENTIMO (65.298,25 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratu da.

III.- 2 H.A.KO 1 B.U.REN (ANDITURRI) BIRPARTZELAKETA PROIEKTUAREN AURREAN SENTENTZIA BETETZEA.-

2013-02-08an Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salak emandako sententziaren bidez, 1121/2011 zbk.dun apelazio errekurtsioan, zera xedatu zen (epaia transkribatzen da):

"LAZKAOKO UDALAREN ORDEZKARITZAK ETA AUSARTONDO S.L.REN ORDEZKARITZAK TARTEJARRITAKO APELAZIO ERREKURTSOA ZATI BATEAN ONARTUZ, 2011KO UZTAILAREN 29KO INSTANTZIA SENTENTZIA BALIOGABETU BEHAR DUGULA (DONOSTIAKO ADMINISTRATIOAREKIKO AUZIETARAKO 2 ZBK.DUN EPAITEGIAN JARRAITUTAKO 377/2010 ZBK.DUN ERREKURTSO KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBOAN EMANDAKOA); ETA MARTIN ARRATIBEL BAZTARRIKA ETA MARIA ARRATIBEL BAZTARRIKA Jn./And.en ORDEZKARITZAK TARTEJARRITAKO ERREKURTSO KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBOA ZATI BATEAN ONARTUZ, LAZKAOKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 2 HIRIGINTZA AREAKO 1 B.U.KO



BIRPARTZELAZIO PROIEKTUAREN BEHIN-BETIKO ONARPEN AKORDIOA BALIOGABETU BEHAR DUGU, JARRITAKO 3 ZBK.DUN PARTZELA LAZKAOKO UDALAREN TITULARITATE-KOA KALIFIKATZEN BAIT DU, ETA HAU ZALANTZAZKO TITULARITATEKOA KALIFIKATU BEHAR BAIT DA, GAINONTZEKOAN AKORDIOA MANTENDUZ. BIGARREN INSTANTZIA HONETAN SORTUTAKO KOSTA PROZESALAK ESPRESUKI EZARTZEA EZ DAGOKIO, ETA AUSARTONDO S.L.K EZARRITAKO GORDAILUA ITZULTZEA ADOSTEN DA."

Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 104.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta epaian jasotakoak bete eta dagozkion ondorioak izateko helburuarekin, ondorengo dokumentua idatzi da: "LAZKAOKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 2H.A.KO 1B.U.KO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUAREN ZEHATZAPENAK ZATI BATEAN E.H.J.A.N.KO SENTENTZIAN DIKTATUTAKOETARA EGOKITZEKO DOKUMENTUA (JARRITAKO 3 ZBK.DUN FINKAREN ZALANTZAZKO TITULARTASUN AITORPENA)".

Azaldutakoaren ondorioz Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabakitzen du:

Lehena.- Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salak 2013ko otsailaren 8an emandako epaia betetzea xedatzea. Aipatu epaia, Martin eta Maria Arratibel Baztarrika Jn./And.en ordezkariak tartejarritako 1121/2011 zbk.dun apelazio errekursoari buruzkoa da, Lazkaoko Udaleko Alkateak Arau Subsidiarioetako 2 Hiri-gintza Areako 1 Burutze Unitateko Birpartzelazio Proiektuaren behin-betiko onarpena emanez luzatutako Ebazpenaren aurkakoa.

Bigarrena.- Aipatu epaia betez, azalpen zatian adierazitako dokumentua interesatuentzat erakusgai jartzea, hogeit eguneko epean, epe horretan aztertu eta egoki deritzoten alegazio eta oharra aurkezte ondorioetarako.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartzen du:

Lazkao Txiki Musika Eskola.- 2014ko martxoaren 24tik apirilaren 4ra antolatutako kultur asteen burututako ekitaldiengatik, bi mila eta bostehun (2.500 €) euroko dirulaguntza ematea.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko bostak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

